

Ordizian, **2011ko azaroaren 24an, UDALBATZA** elkartu da Udaletxeko honetako bilkura-aretoan **OHIKO** bilera egiteko. Bertan honako hauek izan dira:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregi	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	PNV taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	PNV taldea
Iñaki Bolinaga Alzelai jauna	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea


KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi jauna

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK



EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2011ko urriaren 26an egindako ez-ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.
..... 4.orr.
- 2.- 2011ko urriaren 27ko ohiko bilkurako akta onartzea.
..... 4.orr.
- 3.- 2011ko azaroaren 14ko ez-ohiko bilkura bereziaren akta onartzea.
..... 6.orr.
- 4.-Azaroaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Aitorpen Institutuzionala.
..... 7.orr.
- 5.- BILDU taldeak Euskal Presoen alde aurkeztutako proposamena.
..... 9.orr.
- 6.-Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta BILDU taldeak aurkeztutako proposamena.
..... 11.orr.
- 7.- BILDU taldeak Gipuzkoan Itxasoko azpiestazioa Nafarroako Castejón-Muruarte linearekin lotzeko Linea Elektroaren aurka aurkeztutako proposamena.
..... 12.orr.
- 8-Goieki SAko ordezkariak izendatzea.
..... 14.orr.
- 9.- Inbertsio partidetakako kreditu transferentziak onartzea.
..... 18.orr.
- 10.- GOIMENeko ordezkariaren ordezkapena.
..... 19.orr.
- 11.- 2012ko Tasak eta Zergak behin betiko onartzea.
..... 20.orr.

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK


Etorritakoek esandakoak:
.....20.orr.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19,20ak.

AMAIERA ORDUA: 20,40ak.





Alkate jn.

Saioa hasi baino lehen Eguneko gai-zerrendatik 11. puntua kenduko duela azaldu du: "2012ko Tasak eta Zergak behin betiko onartzea" azalpen publikoa egiteko epea amaitu ez delako, eta, beraz, ezin direlako behin betiko onartu. Aipatutako epea amaitzen denean, seguraski ez-ohiko batzar berezia deituko du horiek onartzeko, onarpenerako epea estu xamarra delako.

Era berean, adierazi du Eguneko gai-zerrendan erabaki gabeko lau puntu sartu direla. Hori dela eta, horiek Eguneko gai-zerrendan sartu aurretik bozkatu egingo dira. Hauek dira puntuak:

4. puntua.-Azaroaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Aitorpen Instituzionala.
5. puntua- BILDU taldeak Euskal Preso politikoen alde aurkeztutako proposamena.
6. puntua-Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta BILDU taldeak aurkeztutako proposamena.
7. puntua- BILDU taldeak Gipuzkoan Itxasoko azpiestazioa Nafarroako Castejón-Muruarte linearekin lotzeko Linea Elektroaren aurka aurkeztutako proposamena.

Santamaria jna.

Adierazi du Ohiko Bilkura bakoitzaren aurreko astean egiten den Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean hiru puntu erabaki zirela Osoko Bilkurako gai-zerrendarako eta deialdia jaso dutenean, presazko izaerarekin 5 puntu gehiago sartu direla.

Egoera horren aurrean azaldu du, ez baita hori gertatzen den lehen aldia (Izaro Intsausti zinegotziaren liberazioa onartu zen osoko bilkurari egiten dio erreferentzia), bere taldeak ez direla eztabaidan sartuko eta ez dutela parte hartuko puntu horien eztabaidan eta ezta bozketan ere.

Adierazi du bere taldeak ez lukeela uko egingo, puntu horiek eztabaidatzea Udalaren funtzionamendu arrunterako ezinbestekoa izango balitz, baina ez da horrela.

Gai-zerrendan sartu beharreko puntuetako hiru mozio eta proposamen politikoak dira, eta beste bat genero indarkeriaren aurkako erakundearen adierazpen arrunta.


Eskatu dute, osoko bilkuraren ondoren Bozeramaileen Batzordea deitzea, erakundearen adierazpen hori adosteko, bestela, lehen aldia izango bailitzateke talde politiko guztien adostasunik gabe onartzen dena.

Alkate jn.

Erantzun dio, Eguneko Gai-zerrendan puntu horiek sartu badira, data kontuengatik izan dela. Datorren osoko bilkurarako atzeratzea aztertu da, baina hori onartzea lotuta dago eta zentzua izango du, dagokion datetan egiten bada.

Adierazi du bera ez dela presazko izaerarekin puntuak sartzearen aldekoa, aldeztu aurretik erabaki ez badira, baina ez zuela beste irtenbiderik.

Barkamena eskatu du presagatik.



Jarraian Eguneko gai-zerrendako puntuak irakurri eta eztabaidatuko dira.

1- 2011ko urriaren 26an egindako ez-ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2011ko urriaren 26an ez-ohiko deialdian egin zen ezohiko bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 5 (BILDU 4, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 8 (EAJ/PNV 5, BILDU 3)

Santamaria, Otegi, Garin, Jose Ignacio Iturrioz, Bolinaga, Gutierrez, Imanol Iturriotz eta Asenjo jaun/andreak abstenitu egin dira, ez zirelako saioan izan.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du:

2.- 2011ko urriaren 27an egindako Osoko Bilkura arrunteko akta onartzea.

Proposamena


2011ko urriaren 27an ohiko deialdian egin zen bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jna.



Adierazi du 3. puntuari dagokionez berak esandakoak ez direla zuzen jaso: "PSE-EE (PSOE)-k aurkeztutako mozioa San Jose Udal Erresidentziaren defizitarekin lotutakoa". Uste du ez dagoela osorik eta aktan jaso zen baino gauza gehiago esan zituela.

Berak esandakoari buruzko lehen paragrafoa horrela jasota geratu beharko litzateke:

"Esaten du egia dela Foru Aldundian EAJK eta EAK egin dutela lan, baina EA ere gobernuan izan dela, eta hala ere, jadanik eskatu diotela Udalari aurreko legegintzaldian egoitzen inguruan legez dagozkion eskuduntzak har ditzan".

Gainera esan zuen,

- 1.- Foru Aldundiari eskatzeko adinekoen egoitzarako konponbidean lan egin dezan, aurreko legegintzaldian helburu horretarako sortu zen plataformaz edo mahaiaz baliatuz.
- 2.- Foru Aldundiari eskatzeko lehenbailehen eta legeak dioena betez, Egoitzen inguruan dituen eskuduntzak bere gain har ditzan.
- 3.- Egoitza eredia zehazteko.
- 4.- Egoerari aurre egiteko, Foru Aldundiko aurrekontuetan urtero diru-kopuru bat aurreikusi dadila.

Idazkari andreak

Erantzun dio legez Idazkariari legez dagokiona zinegotzien esanak biltzea eta aktetan jasotzea dela. Kontua ez da esaldi guztiak literalki transkribatzea, zehatz-mehatz esaten diren moduan.

Santamaria jna.

Maiza andreak esandakoa goitik behera jaso dela esan du.

Idazkari andrea


Argitu dio Maiza andreak hitz egin zuenean esan zuela testu bat irakurriko zuela, eta saioaren amaiera Idazkariari eman ziola. Eta idazkariak akta hori oso-osorik transkribatu zuela.

Zinegotzi guztiek irakur ditzakete testuak eta horiek eman, akta jasota gera daitezten.

Santamaria jna.

Jarraian, eta Egunekeo gai-zerrendako 4. puntuari dagokionez, "Zabale baserriko lanen EIOZren hobaria", adierazi du berak esandakoa ez dela zuzen jaso eta hauxe esan beharko lukeela:

"Poza hartu du proposamen berriagatik, onartu zenean, bere taldeak lanen osotasunaren hobaria proposatu zuelako, baina ez zuelako gainontzeko talde politikoen babesia izan. Hori dela eta, ez zen aurrera atera. Hori dela eta, proposatutako lanen %100eko hobariaren proposamena babestuko du".



Idazkariak adierazitako zuzenketa egingo ditu.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako akta onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

3- 2011ko azaroaren 15ean ez-ohiko deialdian egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2011ko azaroaren 15ean ez-ohiko deialdian egindako Batzordearen akta-zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida


Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Adierazi du euskarazko aktaren testuan akats bat dagoela. 1. puntuan "GOIEKI S.A.ko ordezkariak izendatzea". proposamenaren aurrekarietan 2011ko ekainaren 21eko osoko bilkurari egiten zaiola erreferentzia, data zuzena 2011ko ekainaren 30 bada ere.

Zuzenketa egin da.

Dubreuil jn.



Adierazi du Alkateak puntu honetan esandakoa jasotzean, 4. paragrafoan, esan zuenaren kontrakoa jaso zela. Hauxe esan behar luke: "Gaur arratsaldean, ordea, jakin dut akordio-proiektuak Kontseiluaren osaketari dagokionez Sozietatearen Estatutuak errespetatzen dituen arren, espiritua dela alderdi politiko guztiek, ordezkaritza dutenek zein ez dutenek, ordezkaritza izan dezaten.

Idazkariak zuzendu du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 4. puntuaren berri eman du:

4.-Azaroaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Aitorpen Instituzionala.


Proposamena

Beste urtebetez, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, Ordiziako Udalak indarkeria matxistaren aurka jarraitzeko konpromisoa hartu du, gaur egun gure udalerrian gaitz handia baita.

Urte hasieratik 11 emakume erail dituzte Euskal Herrian, eta komunikabideetatik indarkeria matxistaren inguruan jasotzen ditugun berriak milaka dira. Eraso sexistekin lotutako gertakariak eta salaketak eguneroko ogia dira. Herriko jaietan edo jai inguruneetan eraso sexistak areagotu egin dira eta emakumeen askatasuna gero eta baldintzatuagoa dago. Lan arloan eraso sexisten datuak kezkarriak dira. Oraindik ere gazteen artean ikusten diren botere harremanez eta balore patriarkalez gain, gizon askok emakumeen aurkako indarkeria erabiltzen baitute...

Beraz, Euskal Herrian indarkeria sexistaren inguruko diagnostikoa osatzeko datu zehatzik ez dugun arren, aurretik aipatutako datuak kontuan izanik, ondorioztatu dezakegu emakumeen aurkako indarkeria dela gure herriko arazo soziopolitiko nagusia.

Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko erakundeen arteko legeak, protokoloak, aginduak eta hitzarmenak zatikakoak dira, eta beharrezkoa da benetako konpromiso politikoetan oinarrituko den adierazpena egitea.



Horregatik guztiagatik, Udal honek

- Kontuan izango ditu hainbat neurri, indarkeriari aurre egiteko osoko politikari dagokionez; besteak beste, hezkuntzan oinarritutako prebentzio neurriak, erasoaren gertatu eta geroko laguntza-neurriak, edo arazoari erantzun sozial egituratua ematera bideratutako neurriak.
- KONPROMISOA HARTZEA, bere eskumenekoak diren eremuetan eta indarrean dagoen legea aplikatuz, udal politika aktiboa, osoa eta koordinatua osatzeko, hitzetatik ekintzetara pasatuz.

Herritar guztiak GONBIDATZEN ditu azaroaren 25ean, udalerrian edo eskualdean egingo diren manifestazioekin bat egin dezaten, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Nazioarteko Egunean.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jn.

Esan du urtero adostutako adierazpena egin dela alderdi politiko guztien, Emakunderen eta Berdin-Sarearen artean. Galdetu du zergatik oraingo honetan ez den adierazpena adostu, eta Berdin Sarearekin bat egin den.

Bere ustez, aurkeztu den adierazpena zatikakoa da.

Adierazi du Eusko Jaurlaritzaren Osoko Plana dela alderdi guztiak jasotzen eta batzen dituen, horixe baita, osoko plana.

Adierazpenak honela dio: "Bada orduan udal politika aktiboa garatzeko", orain arte ezer egin ez balitz bezala.

Adierazpena honela dio: "Kontuan izango du, osoko politikari dagokionez..."


Orain arte eta aurreko legegintzaldietan egindako politikarekin gehiago edo gutxiago asmatu da, baina jardun jardun da.

Batez ere mingarri egiten zaiona da esatea "hitzetatik ekintzetara pasatzea".

Osoko bilkura amaitzean, adierazpen bat adosteko Bozeramaileen Batzordea osatzea proposatuko dute.

Aurkeztutako adierazpenaren aurka bozkatuko duela adierazi du.

Era berean, min egiten dioten adierazpenean erabilitako hitzek, teknikarien lanari ere balioa kentzen zaielako.



Laburbilduz, lanak hobeto edo okerrago egin dira, baina eginkizunak eta ekintzak egon dira, ez soilik konpromiso faltsuak.

Alkate jn.

Erantzun dio ez duela inolako zalantzari Dubreuil jaunak gaiaren inguruan duen sentsibilitatearen inguruan, eta zalantzarik gabe alor horretan lan egiten dutela.

Osoko bilkuran adostutako adierazpena aurkeztu ez zen arren, adierazi du beste batzuetan ere beste batzuek ez zutela adostu, hasteko beraiek inoiz dutelako EUDELen ordezkari izan.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 1 PSE-EE (PSOE)

Abstención: 5 (EAJ/PNV 5). No han votado, pero a efectos legales éstos votos son abstención.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.




5.- BILDU taldeak Euskal Presoen alde aurkeztutako proposamena.

Proposamena

Euskal Herria une historikoa bizi du. ETAk borroka armatua behin betiko eteteko agertutako konpromisoarekin, aro politiko berriari ekiteko oinarria indartu egin da. Borroka armatuak iraun dituen hamarkadan behin betiko ixteko aukera daukagu aurrean, eta eztabaida demokratikoan oinarritutako ingurune berriari atea zabaltzeko.

Gernikako Akordioan adostutakoari jarraituz, eta Nazioarteko Komunitateak Aieten zabalduko mezuaren bidetik, ETaren erabakiak bakerako bidea zabaltzeko aukera ematen digu. Normalizazio politikorako beharrezko urratsetan, beste gauza batzuen artean, euskal presoen eskubideen errespetua bermatu beharko da. Gernikako akordioaren hitzetan, ezinbestekoa da "euskal preso politikoen aurka egiten den espetxe politika etetea, orain arte liskarraren estrategiaren partetzat erabili dena. Eta hurrengo neurriak hartzea amnistiaren bidean eman beharreko lehen urrats gisa, euskal gatazka politikoen ondorioz sortutako presoak eta iheslariak izateari utz diezaioten. Presoak Euskal Herrira ekartzea, eta jokabide hauek amaitzea eta lorpenak egitea: dispersioa, gaixorik dauden presoak askatzea eta behin behineko askatasuna ematea epaiketaren zain dauden behin behineko preso guztiei, baldintzapeko askatasuna eskaintzea lege betekizunak bete dituzten zigortutako presoek, legez ezarritako espetxe onurak mugarik eta bidegabekeriarik gabe aplikatzea, berrogei urteko zigorra ezartzen duen legea kentzea".



Euskal gizartean urte asko darama euskal presoen eskubideak bermatu daitezen eskatuz. Urteak daramatza familiarrek jasaten dituzten ondorio gordinak salatzen, euskal presoen aurkako neurriengatik. Urteak daramatza, Espainiako eta Frantziako gobernuari eskatzen beren legeak bete ditzaten.

Munduko beste prozesu politiko batzuetan bezala, Euskal Herrian ere euskal presoen errealitatea konpondu beharra dago. Era berean, euskal presoak ere konponbide politikoaren parte izan behar dira, behin betiko aro bat itxi dadin eta indarrez beste bat ireki dadin, etorkizunean libre egingo gaituena.

Azken asteetako hitzei eta ekintzei begiratzan badiegu, Madriletik eta Parisetik ez dago arrasto izpirik ere, egoera berriak eskatzen duen mailakorik. Presoen dispersioak irauten du. Beren familiarrek milaka kilometro egiten dituzten oraindik ere. Zenbait presok zigor mugagabeak betetzen dituzte Parot Doktrinaren ondorioz. Gaixotasun larriak dituzten preso batzuek oso egoera txarrak bizi dituzte. Ezinbestekotzat jotzen dugu egoera hori errotik aldatzea eta norabide berrian urrats berriak ematea.

Hori guztia kontuan har dadin, adierazpen hau egiten dugu, Ordiziako Udaleko osoko bilkuran, eztabaidatu eta onartu dadin:

- 1.- Udal honek, bizi dugun une historikoaren aurrean, euskal preso politikoaren eskubideak bete daitezen eskatzen du. Era berean, beste batzuen artean, eskatzen du dispersioa amaitu dadila eta preso guztiak Euskal Herrira etor daitezela, gaixotasun larriak dituzten presoak aska ditzatela eta baita beren zigorra beteta daukatenak ere.**
- 2.- Udal honek bat egingo du datorren Urtarrilaren 7an, euskal preso politikoaren eskubideen alde egingo den manifestazioarekin.**
- 3.- Norabide horretan, eta mobilizazio horren harira, Udal honetan hautatutako kargudunek baraua egingo dute abenduaren 16an eta kontzentrazioa eguerdiko 12tan.**
- 4.- Udalerriko eragile guztiei deialdia egiten diegu, bat egin dezaten urtarrilaren 7ko manifestazioarekin, eta beren ekimen kultural, sozial eta kiroletako ordutegiak egokitzeko ahaleginak egin ditzatela, deialdiari indar handiagoa emateko.**
- 5.- Herritarrei deialdi zabal eta plurala egiten diegu, desberdintasun politikoetatik haratago, beste urrats bat eman dezaten giza eskubideen alde eta, denon artean, herri honek sekula lortu duen mobilizaziorik handiena lor dezan denon artean.**


Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:



Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 1 PSE-EE (PSOE)

Abstentzioa: 5 (EAJ/PNV 5). Ez dute bozkatu, baina lege ondorioetarako, boto horiek abstentzioa dira.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Alkate jaunak gai zerrendako seigarren puntuaren berri eman du.

6. puntua- Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta BILDU taldeak aurkeztutako proposamena.

Proposamena

Pertsona, hizkuntza eta kultura guztiak berdinak dira duintasunari dagokionez. Denek berdintasuna estatusa eta egoera parekidea behar dute. Horretarako, hizkuntza bakoitzari, bere lurralde osoan, dagokion lidergoa eta iraunkortasuna bermatu behar zaio.

Euskaraz bizi den Euskal Herria ona da guztiontzat. Euskaldunaren erdarak ez du bere egoera arriskuan jartzen. Ezta gaztelania eta frantsesa dagokien lurralde historikoetan hedatzeak ere. Espainiak eta Frantziak, ordea, beren hizkuntzak inposatzen dituzten Euskararen Herrian, eta oztopoak jartzen dituzten euskara bizi dadin. Oztopo politikoak, lege arlokoak, ideologikoak, kulturalak eta soziolinguistikoak.


Euskal Herrian hasi berri den garai honetan, ezinbestekoa da hizkuntza gatazkari konponbidea ematea. Asimilazio linguistikoari buruz hitz egin behar da. Euskal Herrian gaztelaniak eta frantsesak duten hedadura sozial handiaz. Desberdindu behar dira hizkuntza horien onurak zein diren –euskal herriko biztanleentzat, euskaldunentzat eta Euskal Herriarentzat-, eta zein den bere zati asimilagarria. Euskal Herriak du hitza eta erabakia.

Herritarrak agenteak gara, babesleak eta euskara erabiltzeko eta Euskal Herri euskalduna berreraikitzeke bermea. Beraz, ezinbestekoa da herritarren borondatea berrindartzea. Euskararen aldeko pentsamendua “euskaraz bizi nahi du” pentsamendua bilakatzea eta “gaztelaniaz hitz egitetik” “euskaraz hitz egitera” igarotzea, ohitura bihurtuz.

Gaurtik aurrera eta gure udalerrian beharrezkoa da euskarazko elebitasuna abian jartzea, eta zentzu horretan, Udal honek konpromiso hau hartzen du eta dei hau egiten du:

1.- Udal honek ahalegin guztiak egingo ditu Udalean zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten langileen euskalduntzea bultzatzeko eta bermatzeko.

2.- Udalak ahalegin guztiak egingo ditu Udalean zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten langileen lehen hitza euskaraz izan dadin beti.



3.- Udal honek ahalegin guztia egingo du barneko funtzionamendua euskaraz izan dadin.

4.- Udalerri honetan komunitate euskaldunaren norbanakoen eta taldeen hizkuntza eskubideak bermatu daitezten, Udal honek osoko plan bat garatzeko konpromisoa hartu du, eta helburua euskaraz bizitzeko eskubidea izango da, udalerri osoan eta bere eremu guztietan.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (EAJ/PNV 5. Ez dute bozkatu, baina lege helburuetarako, boto horiek abstentzioa dira, PSE-EE(PSOE)1).

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


7.- BILDU taldeak Gipuzkoan Itxasoko azpiestazioa Nafarroako Castejón-Muruarte linearekin lotzeko Linea Elektrikoaren proiektuaren aurka aurkeztutako proposamena.

Proposamena

Arrazoiaren azalpena

2011ko abuztuan, Ingurumen, Nekazal eta Itsas eremuko Ministerioaren kide de Kalitate eta Ingurumen Ebaluazio Zuzendaritzat Orokorren komunikazio Azterketa Sailaren barruan dauden Udaletan jaso da, honi dagokiona: "20110173LIE proiektua, 400/220 Kv azpiestazioaren (Dicastillo deitutakoa) eta 400 kV-rako Lineen eta Elkartutako Lineen (Iruñea) Ingurumen Eraginaren Ebaluazioaren irismena".

Jasotako dokumentazioa España S.A.-ren Sare Elektriko programari egiten dio erreferentzia, Gipuzkoan Itxasoko azpiestazioa etorkizuneko Nafarroako Dicastillo 400/220 kV azpiestazioarekin lotuko duena, eta Dicastilloren loturari Castejón-Muruarteko L/400 kVrekin. Aztertzen ari diren lotura berriek 400 kVko bi linea izango lituzkete, guztira 120 km-ko luzeerakoak eta 6 ha. beteko lituzkeen azpiestazio elektrikoak.



Proiektu honek Vitoria-Gasteiz/Castejón-Muruarte linea ordezkatzuko luke, baztertu egin baitzen, 2010eko azaroaren 12ko 274 zenbakidun BOEk jasotzen duenaren arabera, ingurumeari kalte egiten diolako eta proiektu horrek gizartean sortu zuen oposizioagatik. Hori dela eta, gizarteak aurka egitea eragin zuten arrazoi horiek berak, eta lehen proiektua baztertu izana, intentsitate berdinarekin mantentzen da gutxienez, gehiagorekin ez bada, orain eztabaidatzen denaren aldean.

Linea berri honen ezaugarriak aurrekoaren antzekoak dira, hau da, 42/46 bitarteko altuera duten dorreak, elkarren artean 400/500 metroko distantzia dutenak, 4 oineko hormigoizko oinarriak dituztenak, elkarren artean 5,90 eta 10,14 metroko tartean dutenak. Debehatuta dago horietatik gertu zuhaitzak landatzea eta eraikinak eta instalazio industrialak eraikitzea.

Ingurumen eta paisaia eragina onartezina da, Hasierako Txostenean proposatzen diren diseinu guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan babestutako eremuei eragiten baitiete, baita 2000 Natura Sareari ere. Guztira, lerroak lege desberdinek (europarrek, estatukoek, aldundi mailakoek eta autonomia mailakoek) babestutako berrogeita hamar bat eremutan eragingo luke. Zehazki, aipatutako 19 zatietako 17k babestutako espazio edo espezieengan eragingo lukete. Ondorioz, ibilbidearen 69 aukeretako batek ere ez lituzke ingurumenaren ikuspegitik gutxieneko baldintzak beteko.

Gauza bera gertatzen da eremu elektromagnetikoen osasunean eragingo lituzketen kalteen inguruan. Ibilbidearen aukeretako batek ere ez lituzke beteko Europar Batasuna aholkatzen dituen distantzia irizpideak, arreta printzipioaren arabera. Guztirako 19 ibilbideetatik, horietako 14 herrietatik 500 m baino distantzia txikiagoa egongo lirakeke, zehazki Nafarroako eta Gipuzkoako 43 herritatik. Zati zati aztertutako bagenu egoera, hasierako txostenean aztertzen diren 69 aukeretatik, pasabideetako bat ere kontuan hartu ezin dela ikusiko dugu, horietan guztietan segurtasunekotzat jotzen dena baino distantzia txikiagoetara baitaude herriak.

Horri guztiari ingurune sozioekonomikoan izango luketen eraginari buruzko informazio falta larriak gehitu beharko litzaizkioke, turismoan eta aisialdiko eremuetan izango lukeen eragina, ondarearengan izango lituzkeen ondorioak edo lurralde ereduarekin bat etorriko ote lirakekeen ala ez, zeharkatzen dituen eremuetako legeak desberdinak izanik.


Proiektu horrek eragin negatiboa izango duenez bai Nafarroako, bai Gipuzkoako eremu zabalean, paisaiarengan, ingurumenean, herritarren osasunean, produkzio sarean eta lehen sektorean.

Udal honek ADOSTU DU:

1.- Erabateko desadostasuna agertzea 400 kV Linea Elektrikoaren Proiektuari, Gipuzkoan Itxasoko azpiestazioa, Nafarroako Castejón-Muruarteko linearekin, bai aurreikusitako azpiestazio berriarekin lotu nahi duena.

2º- Aurka egitea España S.A.ko Sare Elektrikoaren Hasierako Txostenean jasotako pasabideetako edozeini, eta baita Goi mailako Tentsio lineari ere, interes kolektiborako ez baitu justifikazio nahikorik.

3.- Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eta Parlamentuari eta Ingurumen eta Nekazar eta Itsas eremuko Ministerioari eskatzea proiektu horren aurka egin dezaten, bai paisaiaren aldetik, bai ingurumenaren aldetik onartezina delako, denontzat gakoak diren eremuak kaltetzen dituelako.



4.- Akordio hau bidaltzea Ingurumen, Nekazaritza eta Itsas Ministeriora, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministeriora, Nafarroako Parlamentura, Nafarroako Gobernura, eta publiko egitea komunikabideen bitartez.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: batere ez

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (EAJ/PNV 5. Ez dute bozkatu, baina lege helburuetarako, boto horiek abstentzioa dira, PSE-EE(PSOE)1).

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8- GOIEKI-ko ordezkariak izendatzea.

Proposamena

2011ko ekainaren 30eko udalbatzan, Udalak parte hartzen duen erakunde eta entitateetan Udaleko ordezkariak izendatu ziren, baina egiteko geratu zen Goierriko Ekimena, S.A.-ko ordezkarien izendapena. (Goieki, S.A.)


Alkatetzaren proposamenaren berri ematen da, Udal honetako ordezkari izendatzeko GOIEKI, S.A.-ko Administrazio Kontseiluan:

- IGOR EGUREN IZAGIRRE
- JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



Alkate jn.

Azaldu du gaur Osoko Bilkurara dakarren proposamena aurreko osoko bilkuran mahai gainean geratu zen bera izan zela: Santamaria jn. eta Alkatea bera izatea Goieki S.A.-ko Ordiziako ordezkariak.

Azaldu egin nahi du, ordea, zergatik geratu zen puntua mahai gainean.

Azaldu du erabakia atzeratzen ari dela eta erabaki beharra dagoela elkartearen osaketa.

Hasieratik bi irizpide aztertu dira:

- 1) elkartearen beraren Estatutuek adierazi eta araututakoa, Ordizari zenbat ordezkari dagozkion ezartzen duena, hain zuzen ere, bi.
- 2) Proporzionalitate irizpidea, hau da, talde politiko bakoitzak lortutako hauteskunde emaitzen araberakoak.

Aurreko hauteskundeetatik Goiekitik udalerrri bakoitzari dagokion ordezkari kopurua pasatu da, herri ordezkari horren arabera, eta horren arabera, BILDUri 6 ordezkari dagozkie.

2011ko ekainaren 30eko osoko bilkuran akordiorik ez zela lortu adierazi du, ez baitzekiten ondo zer prozedura jarraitu izendapena egiteko, inork ez baitzien horren inguruko informaziorik eman.

Azaroko lehen astean, ordezkari politikoen artean hitzartu zen Goiekiko Kontseiluaren osaketa. Udalerrri desberdinetako ordezkariak irakurtzera igaroko da. Ordizian Igor Eguren eta Jose Miguel Santamaria izango dira.

Santamaria jna.

Gai horren inguruan zer gertatu zen nola kalifikatu ez dakiela dio, baina uste du, Alkateak esan duen moduan ekainaren 30etik -data horretan izendapenak egiteko geratu ziren-, ordua da jadanik akordioa lortzeko.


Errespetu falta iruditzen zaio Bilduren aldetik, akordioak lortzeko denbora nahikoa eskaini ez izana.

Irailean gaia berrartuko dela esan da, azaroan ez-ohiko osoko bilkura deituko da, akordioa lortzeko presa handia dagoelako, eta aurreko astean, berriz ere, puntua eztabaidagai geratu zen, ez baitzen akordiorik lortu.

Alkateak esan du, alderdi politiko guztiekin hitz egin duela, PNV, PSEE eta gainontzeko alderdi txikiekin, baina ez duela hitz egin Hamaikabat, PP, Aralar eta EBrekin.

Alkate jn.

Eten egiten dio esateko Osoko bilkurako grabaketa entzun duela eta horren irauten duen bost minutuz, ez dela aipamenik egiten azken hauteskundeetan ordezkari politikorik lortu ez duten alderdiei buruz, bi



ordezkarietatik bat beharbada Santamaria jn. izan zitekeela eta alderdi politiko guztiek egon beharko luketela ordezkatura, nahiz eta gero aipatu ordezkari hori hauteskunde emaitzen arabera dela. Horretatik uler daiteke, ordezkari hori lortu ez dutenak ez daudela.

Alkate jaunak gogorarazi du ekainaren 30ean esan zuela, bere alderdiaren iritzia zela udaletan ordezkari hori lortu zuten alderdiek bakarrik ez zezatela aukera izan ordezkari hori lortzeko, baizik eta baita hauteskundeetara joan ziren guztiek, sindikatuek gain. Hori dela eta, ez du onartzen Santamaria jaunak bere taldeari egotzitako errespetu falta.

Beraiek ados daude denak egoteko kontu horretan, baina onartzen edo babesten ez dutena da gehiengoak banatzea.

Azaroaren 3an Aitor Aldasoro, Beasaingo EAJ/PNVko ordezkariarekin bildu zen. Gaur Osoko Bilkurara ekartzen den proposamenean akordio batera iritsi ondoren, joan den astean ezohiko osoko bilkura ospatu baino 2 ordu lehenago, eta Beasaingo izendapenen ondoren, Goiekiko espirituari egin zaio aipamena eta lagapenak aipatzen dira. Izan ere, joan den asteko proposamena mahai gainean geratu zen EAJ/PNVk esan duela proposamena onartuko duela, gero BILDUren aldetik lagapenak egiten badituzte. Adosteko prest daude, baina ez baldintzak onartzeko prest.

D'hondt legea aipatu da, baina estatutuek ez dute bere testuko atal bakar batean ere aipatzen. Udalerriko ordezkarien banaketa besterik ez da egiten, eta EAJ/PNVk jakingo du nondik datorren behin eta berriz aipatzen duen espiritu hori.

Azkenik adierazi du bere taldea ez dagoela lidergoan ez protokoloetan jantzia, baina iruditzen zaio ateratzen denaren betebeharra dela berriari jarraitu beharreko prozeduraren inguruko informazioa ematea. Beraiek ez dute inolako informaziorik izan, eta ez nola jokatu ez jakiteagatik lotsarazi egin nahi izan zaie.

Santamaria jna.

Erantzun dio beraiek ez dutela BILDU lotsarazi, baina iruditzen zaio gai honetan utzikeria egon dela, eta luzeegi joan dela.


Adierazi du bera ez dela Plazaola jn-rekin egon, eta Beasainen eramaten zen proposamena jakin zenean, Lazkaoko Patxi Albisuri deitu ziola. Horren ondoren Aitor Aldasororekin harremanetan jarri zen gaia aztertzeko, ez baitzeuden ordezkari hori alderdi guztiak.

Gainera, adierazi du ez dela alderdi politiko guztiekin hitz egin, ezta udalerririk guztiekin ere.

Asenjo jauna

Esan du ekainaren 30ean osoko bilkurara eraman zela Goiekin Ordiziako bi ordezkari izendatzeko proposamena.

Santamaria jaunak puntua eztabaidagai uztea proposatu zuen, izendapenetan Goiekik jarraitzen duen filosofiari jarraiki.



Alkatea defendatu du, gaia landu duelako eta denbora eskaini diolako.

D'hondt Legea aplikatzeko irizpidea Santamaria jaunak defendatu zuen, eta esan zuen EAJri 2 ordezkari zegozkiola, eta galdera da orduan, nola bermatuko den alderdi politiko guztiak ordezkatuta egotea.

Jarraian zenbait plataforma izendatu ditu, Goierri zenbait herri txikitan ordezkariak daukatenak.

Estatutuen arabera, Ordiziari bi ordezkari dagozkiola gehitu du.

Santamaria jna.

Erantzun dio posible dela, EAJko bi ordezkari egon arren, boto laga daitezkeelako eta botorik gabe ordezkatu.

Esan du BILDUri dagokiola Goiekiren osaketa zuzentzea eta Plazaola jn. joan egin dela.

Alkate jn.

Amaitu du esanez, BILDUren filosofia talde politiko guztiak ordezkatuta egotea dela. Gehitu du, Estatutuek hala eskatuta, ordezkariak egokitzen den bezala izendatuko direla, baina eguneroko lanean ordezkari guztiak funtzionatuko dutela, nahiz eta adierazi beste foro batzuetan ez dela horrela izan, adibidez EUDELen.

Ekainaren 30eko osoko bilkurako proposamen berdina egingo dute, eta bere konpromisoa da alderdi guztiak parte hartzea Goiekin, behin betiko osatzen denean, Estatutuekin adostasuna adierazten duen proposamena onartu ondoren.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)


Kontrako botoak: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE(PSOE)1).

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



9.- Partidetan eta inbertsioetan kreditu transferentziak onartzea.

Proposamena

Kalea garbitzeko zerbitzuaren funtzionamendua hobetzeko kale-garbigailu bat erosteko asmoa dago. 113.280 euro (bez barne) balio du.

Eusko Jaurlaritzak horretarako 49.955,52 euroko diru-laguntza ematen du.

Indarrean dagoen aurrekontuan ez dago erosketa hori egiteko aurrekontu krediturik.

Kreditu erabilgarria duten bi inbertsio partida daude.

Inbertsio partidetako transferentziak osoko bilkurak onartu behar ditu.

AKORDIO PROPOSAMENA.

1.- 622.422.12.01 partidako 32.000 euroko (Urdaneta eskolako hobetze-lanak) eta 733.452.20.01 partidako 31.324,48 euroko (Majori SLko kapitalaren transferentziak) transferentzia onartzea 623.442.20.01 (kale-garbigailua erostea) partidara.

2.- Esleipenerako baldintzen plegua onartzea

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jna.

Adierazi du jakin duela Beasainen kaleak garbitzeko makina bat dutela ia erabiltzen ez dena, egunean 2 orduz besterik erabiltzen ez dutena, eta akordio batera heldu litekeela.

Asenjo jn.


Gai zaharra dela erantzun dio, aspalditik aztertzen, lantzen eta eztabaidatzen ari dena.

Adierazi du beharrezkoa dela erostea, eta horrelako makina bat beste udalerrri batekin partekatzeak, neurri batean, arazoak dakartzala ondo erabiltzeko.

Gainera aprobetxatu beharko litzatekeen nahi diru-laguntza garrantzitsua dago.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:



Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE(PSOE)1).

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

10.- GOIMENeko ordezkariaren ordezkapena.

Proposamena

Honen bitartez jakinarazten da Iban Asenjo Gardek uko egin diola Goimen Elkartean Udal honetako ordezkari izateko izendapenari. Izendapen hau 2011ko ekainaren 30ean onartu zen.

Hori ikusita, Alkatetza honek Belen Maiza Urrestarazu andrea izendatzea proposatu du Udal honen ordezkari Goimen Elkartean, Asenjo jn.-ren ordezkartzan.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jna.

Orain arte ordezkaria Sustapen eta Garapen Alorreko Ordezkaria izan dela esan du, Delegazio honekin lotutako gaiak lantzen direlako.


Asenjo jn.

Izendapena diru-laguntza batzuk lortzeko egin zela esan du, eta gainera, uste du Maiza andrea oso egokia dela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE(PSOE)1).



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

11.- 2012ko Tasak eta Zergak behin betiko onartzea.

Alkate jn.

Saioaren hasieran alkateak azaldu duen moduan, puntu hau Gai-zerrendatik kendu du, izan ere, alegazio bat aurkeztu den arren –eta ondorioz, Udaltzazak erabaki behar du, behin betiko erabaki dadin-, oraindik ez baita agerpen publikorako epea amaitu, beraz, amaitzen den arte, ezin da Osoko Bilkuran horren inguruko akordiorik lortu.

Aurrekoa dela eta, adierazi du beharbada, epeak estuak direlako, beharrezkoa izango dela ezohiko osoko bilkura antolatzea.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

12.- Galde-eskeak.

.- Erramun Amundarain jaunak, publikoan zegoenak, Santamaria jaunari galdetu dio nola ordezkatu duen Udala Goieki S.A.-n, akordioaren aurka bozkatu ote duen.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.